

TREBAKUNTZA 2017-01: A ITSATSIA

Udal idazki askotan A itsatsia oker erabilia ikusi izan dugu. A itsatsia behar bezala erabiltzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Ez ditu bi egi jarraian esaten.*
2. * *Hirigintzako zinegotziak famili arazoak zituelako atzeratu zen bilera.*
3. * *Aurreko alkateak hainbat azpikeri eginak zituen etxebizitza berrien proiektuan.*
4. * *Administrari berriak aurrerakuntz handiak egin ditu.*
5. * *Egungo gazteri honek ez daki zer den gerra garaian bizi izatea.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Hitz hauek, beste hitz askoren artean, -a itsatsia dute: abantaila, aitzakia, anaia, animalia, arnasa, bidaia, burdina, egia, eliza, erregina, familia, feria, gauza, giltza, habia, ideia, justizia, kontzientzia, paisaia, panpina, pertsonaia, premia, probintzia...

Ad. Ez ditu bi **egia** jarraian esaten.

Ad. Hirigintzako zinegotziak **familia** arazoak dituelako atzeratu zen bilera.

2. Atzizki hauekin osatutako hitzek ere bai:

-keria atzizkia: alferkeria, azpikeria, handikeria...

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Ad. Aurreko alkateak hainbat **azpikeria** eginak zituen etxebizitza berrien proiektuan.

-kuntza atzizkia: hezkuntza, aurrerakuntza, hobekuntza, irakaskuntza...

Ad. Administrari berriak **aurrerakuntza** handiak egin ditu.

-(t)eria: gazteria, gizateria, ontziteria...

Ad. Egungo **gazteria** honek ez daki zer den gerra garaian bizi izatea.

-(k)ada atzizkia: besarkada, matxinada...

-tza atzizkia: nekazaritza, agintaritza...

-kintza/-gintza atzizkia: kulturgintza, zapatagintza...

-(k)era atzizkia: bukaera, harrera...

-(k)eta atzizkia: hizketa, azterketa, ikasketa...

-tura/-dura atzizkia: prozedura, abiadura...

3. Eta beste hauek ere bai:

-gura: logura, negargura...

-bera: hozbera, bihozbera...

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99